

telebista ♦ irratia

Ibarretxe lehendakariari elkarrizketa ETB2an

Hiru ordu laurdeneko saioan gaurkotasun handiko gaiak aztertuko dituzte

Erredakzioa / Donostia

Juan Jose Ibarretxe Euskal Autonomi Erkidegoko lehendakari berria elkarrizketatuko dute gaur arratsaldeko bederatzi eta erdietan ETB2an. Elkarrizketatzaileak Mikel Urretabizkaia, Uxue Barkos eta Lontzo Sainz izango dira.

LEHENDAKARI kargua hartu zuenetik lehen elkarrizketa emango du gaur Juan Jose Ibarretxek ETBko bigarren katean. Hala, arratsaldeko bederatzi eta erdietan, gaueko *Teleberria* bukatu ostean, hiru ordu laurdeneko elkarrizketa luzeari egingo dio aurre EAEko lehendakari berriak.

Juan Jose Ibarretxeri elkarrizketa egiteko ardura-dunak Mikel Urretabizkaia ETBko albistegietako zuzendaria eta Uxue Barkos eta Lontzo Sainz kazetariak izango dira. Bertan, gaurkotasun handiko gaiak aztertuko dituzte. Hala, besteak beste, Eusko Jaularitza berriaren osaketa, horretarako beharrezkoak izan diren negoziazioak edota hasi berria den legegintzaldian izango diren erronkak izango dira aztergai.

Aurreko igandean Gernikako Juntetxean Ibarretxek lehendakari karguaren zina egin zuen bezala, gaur bere



ANDER GILLENIA

Lehendakari kargua zin egin osteko lehen elkarrizketa izango du gaur Juan Jose Ibarretxek ETB-2an.

sailburuak izango direnek beteko dute tramite hori. Ondorioz, esanguratsua da Jaularitza berria lanean hasiko den egun berean elkarrizketatzea ETBk Juan Jose Ibarretxe lehendakari berria.

Aditu guztiek azken egunetan aipatu dutenez, Eusko Jaularitza berriaren ezaugarriak nabarmenena Ibarretxeren konfiantzako gobernua izatea da, bertako

hamar sailburuetako asko berarekin soinez soin lan egindakoak baitira. Era berean, adituek sailburu gehienek egunetik egunerako lan teknikoetarako duten trebetasuna ere nabarmendu dute.

Eusko Jaularitzan gaurtik aurrera lanean hasiko diren hamar sailburuetatik lau -Idoia Zenarruzabeitia, Xabier Balza, Iñaki Gerena-

jeltzaleak-berriak dira. Gainerako seiak, aldiz, aurreko legengintzaldian ere izan zuten lekua. Hain zuzen ere, horiek Mari Karmen Garmendia, Iñaki Azkana eta Alvaro Amann jeltzaleak eta Inazio Oliveri, Sabin Intxaurre eta Patxi Ormazabal EAKo kideak ditugu.

Hala, gai horiek guztiak izango dira ETBko gaurko elkarrizketa luzean azalduko direnetako batzuk.

laburrean

'Querido detective' telesaila gaurtik aurrera ETB2an

Gaurtik aurrera 'Querido detective' polizia kutsuko telesaila emango du astelehenetik ostiralera ETB2 telebista kateak. Saila, arratsaldeko bostak eta bostean eskainiko da *Lo que faltaba* programaren ondoren. Nueva Orleansen girotutakoa da, eta bertako protagonista nagusiak detektibe bat eta fiskal laguntzaile bat dira. Telesaileko rol nagusiak Tony Crane, Susan Walters eta Barry Corbin aktoreek betetzen dituzte. 'Querido detective' telesaila Jim McBride zuzendariaren izen bereko pelikulan oinarritutakoa da.

ETB1ek Tau Ceramicaren partidua eskainiko du zuzenean Gasteiztik

Tau Ceramica talde gasteiztarak Israelgo Maccabi Tel Aviv taldearen aurka jokatu duen saskibalo partidu garrantzitzua emango du zuzenean gaur arratsaldeko zortzi eta erdietan Euskal Telebistaren lehen kateak. Gasteizen jokatu duen norgehiagoka Euroligako bigarren faseko lehena izango da talde arabararentzat. Euroligan Europa osoko saskibalo talde onenak biltzen dira egun. Ohi bezala, Xabier de la Fuente kazetaria izango da erretransmisiore buruzko zehaztasunak emateko arduraduna.

Plataforma digital bakarra eratuz gero, alde tekniko beste operadoreen esku uztea nahi du Espainiako Gobernuak

Azkenean gaur egun Espainian satelite bidezko telebista eskaintzen duten bi plataformak bakar batean elkartzen badira, beren alde teknikoa sortu daitezkeen operadore berrien esku utzi beharko lukeela defendatu du Espainiako Gobernuak. Operadore berri horiek «dagoeneko sortutako infra-estruktura» erabili beharko luketelako ideia Nueva Izquierdako parlamentario batek egindako galdera bati erantzunez defendatu du Espainiako Gobernuak.

aditza badut ♦

Xabier Lasa

Ibarregarri sariak

EITB • Jarri gintezke serio-ska, eta sarituen merituari erreparatu gabe EITBko Sariak deskalkifikatzaera jarri. Esan genezake, EITBko langileen autoestima kolektiboa goratzeko *Ikaragirre Sari* autopublizitarioa dela. Baina begibistakoa errepikatzea litzateke. Kikek-Piterrek eskuartean zuten mamuzaharra erlatibizatu aldera komizitatera jo zuten, eta *Ibarregarri Sariak* aipatu zuten. Bete bete definitu zituzten Sariak, alajaina. Ikus-entzuleen esku omen dago onenei bozkatzeta (?). Baina Sarien filosofia eta emaitza ikusirik, egiaz geratzen zaiguna orduerdir TB.ren aurrean jarri eta mendeku txikia hartzea da, urtean zehar gorrotatu nahiz maitatu ditugun komunikatzaileen bizkar. Gau horretan beren habitat naturaletik at dabilta, eta sari jasoketa zein eskerren zeremoni natural-itxuratia, autoparodia bilakatzen dute inkontzienteki. Bada, horixe, Ibarregarri Sariak.

Susana aingerua • Irratizaleontzat sariketak badu beste morborik: soilik ahotsez ezagun genituen misterio sensualak begiz kontenplatzeko parada eman ohi zaigu. Halaxe gertatu zen S. Mujikarekin. Batzuzentzat zeruko aingerua dugu, goiz jeikitze latzak gozarazten dituelako. Besteentzat, enpresariak irratian infiltratu duten infernuko aingerua, kanpai pizgarri langileok irrikaz abia gaitzen lanera produzitze-ra.

Datozen sariak • 2. milurtean onena sari dezagun eskatu beharrean, oroi-men ariketa proposatuko zaigu: *EITBn inor gertatzen al da saritu gabe?* Euskadi Gaztea ia osoa saritu da jada. Saritugabeko *rara avis*ak, berriz, aski du merituak egitea Belokirekin lan-kontratu luzatzearen, eta pazientzia izan.